

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

5469

394/2024 DEKRETUA, azaroaren 26koa, Ekonomiako eta Europako Funtsetako sailbururordea kargutik kentzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1982 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko azaroaren 26an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Iñaki Ruiz Manzano jauna Ekonomiako eta Europako Funtsetako sailbururorde kargutik kentzea, Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailean beste kargu bat beteko baitu, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2024ko azaroaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 26an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.